BAGILLA
17
Eguaztena
Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru hil.
Bilbao'atazkua ... 11,25 » »
Idazki-itunmena ... 62,00 » urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 » »

Beldayen itunduba

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.324 zenbakija

Gayak

ARAUDIJA DALA-TA

"ElConcierto ante todo"—"El Pueblo Vasco„'k, esan dau. Eta "vascongadu" gustijen gurarija be, orixe ei-da. Ba-liteke "vascongaduen" gurarija ori ixatia.

Euzkeldun gustijena, ez oraiño.

Euzkeldunak, benetan euzkeldunak diranak eta Euzkadi euzko-bidez jauri gura dabenak, atzerira begira bixi diran Bilbao'ko "El Pueblo Vasco" guzur-ixendun izparingijen "vascongaduetatik", urun bixi dira, ba.

"El Pueblo Vasco" ixenaz "El Pueblo Maketo.,'ren aldezle purukatu agertzen dan atzeritar izparingi ori, euzkotarен areyo agirikua dogu, ta euzkotarон eskubidiak eta zorijona maltzuzkeriz atzipetuten dabilana.

Euzko-Araudirik eztau gura.

Eta berak gura eztauana enparauak be eztabela gura agertu-guriak eskatuta, "vascongadu" gustijen eretxia be, orixe dala autortzen dau.

Eta berak diñuana sendotuteko asmoz, socialisten eretxija be, bardiña dala diño. Beraz, auzi onetan, socialistak eta eurak, eretxi batekuak dirala.

Ba-liteke, orixe be, egija ixatia. Bilbac'ko "El Pueblo Vasco" ta socialistak len be sarí alkar besarkatubak dira, ba.

Jeltzaliakin, baña, "vascongadu" gustijen eretxikua dala diñuan "El Pueblo Vasco" guzur-ixendun izparingi ori, bein be ezta buztartu, maltzur-bidetik dabilanik, jel-buztarpian buztartu be ezin leikelako.

"El Concierto" edo dalako ori, Euzko-Erija'ren askitzazko edo asabagandik yatorkun jarauntzi edo "herencia" bat dala diñosku, ta jarauntzi ori sendo eutsi biar yakala.

Asabakandiko eskubidiai sendo eustiari, ederto be ederto deritxagu. Eta Euzko-Alderdi Jeltzalia'k sortu zanetik asita gaur-arte egin ixan dabena be, orixe baño besterik ezta ixan: asabakandik yatorkuzan eskubidiak aldeztu.

Gure asaba zarak azke laga euskuben aberija, Euzkadi euzkotar gustijon Aberija, irakurle, "El Pueblo Vasco" izparingijak aldeztuten dabezan borbondar bakaldun atzeritarak, Gaztela 'ren jopu biurtu eben.

Guzur-ixenaz ugutzauriko izparingi orek, edesti au ondo ezagutzen dau. Asabakandiko azkatasun au Gaztela 'ren oinpian zapalduta ikusi--aren be, baña, atzipez zapalduba ixan zan azkatasunaren aldez lero bat bera be eztau iñoz idatzi. Kaltez, ostera, leruak -lero, bata izparingi osua be.

Euzkadi'ren benetako eskubidiak aldeztu biar diranian, euzko - eskubide gusti orein aurka jagiten yaku, ba.

Eta azkatasun osuaren aurka beti ta beti jagi ixan dan izparingi bakan orixe da, orain Araudija'ren aurka jagi dana be.

Eta Araudi-kaltez dagijan indara kaltekoragua ixan dagijantzat, "Concierto" edo dalako ori azpileratuten dau, ta bere aldezle lez agertu.

Eta gure asaba zarak ezagutu be egiten ezeben "Concierto" ori, askitzazko jarauntzija detuten dautsa, ta Araudi gustijen ganetik berau aldeztuten biartuta gagozala, esan.

Euzko - eskubide gustijentzat aizto zofotza ixan dan borbondar izparingijari auzi onetzaz ezer erantzun biarik eztaukagu. Erantzun biara ba'gendu, baña, aiko-maikuetan astija galtzen ibili barik erantzungo geuskijo, ta koldarkeri barik erantzun be. Euzko -Araudija aldeztuten dogunian, "Concierto Económico" ori be, aldeztu egiten dogula, esango geuskijo, ta Euzkadi'ren azkatasun osua be bai.

Eta erantzun onegaz, Euzkadi'ren erijotzea lortuten lerenak egiñaz euzkotarон izkuntzea-gañoko gustija ilobiratuta ikusi gura leuken izparingi maltzur orí, beste egi askoren artian, bat getu baño ezkeunkijo egingo.

"¿El Concierto ante todo?". Ori, zubek, borbondarен onarен Gaztela'ren aldezle purukatu agertzen zarienok esateko baño, Euzkadi'ren eskubidiak aldeztuten dabiltzanak esateko, bidezkuagua da.

Euzkadi-aldez iñoz ezer egin eztozubenokandik, orain bere aldez, eskubide askoren artian txikitxubena lortu biar dan egunetan, ¿zer itxaroteko? ¡Eragozpenak!, eta besterik ezebez.

Beraz, "Pueblo", Euzkadi'ri yaokan auzi onetan, ez estutu, Euzkadi'k auzi onetan aldezle onak daukoz-eta.

Eta bai biar be. ¡Bestela. zubek gora-bera...!

URIBITARTE'TAR IBON

ERRIJETATIK

MAÑARIA

PALTA IXAN DIRANAK...—Ekandua ez galtziarен edo, Andoni Deuna 'ren jai-usañera Paraon'en ondorenguak (ijito jaunak) be agertu dira. Aurten, bederatzi egun auretijaz etorí dira. Ori dala ta, eurok, ze "debozinok" edo ze "abozinak" ekari dauzan eztakigu... Ori, gure bururako ezta ixan be ta... Dakiguna da baña, gauzia daguan lekuan atzerakada ondirik eztabiela egingo; ainbeste jenteren artian "negosijoren" bat egin al-badagije edo, begi ta belari, adi ta zur ibiliko dira -ta... Orek, euren biximoduan, euzkeldunekaz euzkeraz, ta erdeldunekaz erderaz ta abar egiñaz, zintzo be zintzo jokatzen da-be beintat...

Gero... euzkotar asko. euzkera ikastia, gauza zala ta gatxa dala-ta, jaungoikuak emoniko elia ikasi eziñik ibijiko dozak... Orek, zelan edo alan ikasten yuek ba...

MAÑARIKO.

Uara.—Atzoko ingoskijan sartu ezinda izparingitik at geratu zan Mañari 'ko idazkijaren zatija da au.

Autu-mautuka

TXEIGO BAT!

Euzkadi'ko eskumarak - eta ariskurik dagola, be, azkenerafte eztabe uste. Gauzak galduten diranian, orduban larritzen dira. Antziñako praile arein antzean. ¡Ipuñakaz yatorkuk!, norbarek esango daust. ¡Bai ba!

España'ko eregia zan Karla Lenengua praile batzuen etxera juan zan. Etxe edera zan ezkero, poz-pozik ebiian. Olako baten eregiak praile-buru zanari esan eutson:

—Balkoi edo txeigo onetan buriñik (burnirik) ezeguan.

—Ez, baña praile bat jausi ta il zan bai? eta burni ori ipiñi geban.

Ibili ta ibili beste balkoi eder batera eldu ziran. An, be ezeguan burnirik. Eregiak lari begiratu eutson praile-buru zanari. Eta onek igari eban aren itauna:

—Emen oindiño eztogu burnirik ipiñi, baña praileren bat noiz jausi ta ilgo dan begira gagoz, gero burnija ipinteko

ARANTZALE JATORA

—Baimen edo lizentsi - barik arantzuban zabiltzan ezkero, lau laurleko kenduko dautzudaz—, txiñelak esan eutson.

—Ni eznabil ibili arantzuban.

—Ezabiltzala? Kañabera ori zetarako da? Eta amuba? Eta ara?

—Ezetz gixona, enabil arantzuban.

—Zetan zabiktz, ba?

—Arari igeri-egiten erakusten!

ARAUDI-ALAZ

Euzkadi'ko eskumaren izparingijak! Oreik dozak mutilak! Euzko-Araudija aurera duala ikusi dabenian, ixil-ixiliik egon dira. ¡Lotsaz! Orain, ostera, eragozpen batzu agertu diranian, txakurtxubak legez au-au asi dira.

—Zegatija? Kontziertuba gurago ei-dabe. Biboliña joten antziña ikasi eben-ta

LAPUR ONA!

"Queen Mary" zer dan ba-dakixube, ezta? England'eko itxasontzirik andijena. Oraintsu York Bari deritxon urijan egon danian, 37.570 notiñek ikertu dau. Bakotxari dolar bat kenduten eutsoen. Irebazte ederak! norbarek dasake.

Kipitainak, ostera, ezetz diño. Barkura sartu diranak ostu dabezan gauzak ori baño geyago balijo dabe. Orein artian atso lodikote bat joian. Eta atsuak erantzun eutsoen:

—Ai, England mate-mateko gomutakitxu bat daruat!

"Queen Mary„'ko arain-ontzija eroian!

GOROTUA DAUTSOZUBE

"Araudijaren aurka idazten dabenai, zelako gorotua dautsozube" adizkide batek esan daust. Miia bidar ezetz esan dautsodan aren, enau ziñistu.

—Zegatik idazten dozu euren aurka ba?

—Lastimia egiten dauste.

—Lan geyegi egiten dabelako? Ixerdi asko botaten dabelako? Erasoia daukela-ta?

—Ez gixona! Araudijaren aurka itz edo idazten daben bakotxean arpegi itxusijegija ipiñi daroielako!

Chesterton'en erijotza

Gaurko egunetan, England'en beintzat, idazle onen malako gitxi dira. Jakintsu, margolari, irisle, olerkari, nobela-egile ta katoliku azkara. Gaudi osuan zabaldu ta irakurijak ixan dira bere idaztijak. "Ziñausliak", "Ortodoxia", "Asis'ko Pantzeska Deuna'ren bixitzea" eta abar.

Chesterton'en lenengo idaztijetan bere zintzotasuna agertu zan. Ruskin'en kidekua zan-edo. Igazi zan eungijan nausi ziran gogayak bazteruterano sayatu zan. Bixitzeak nagikeri ta aberaskerijak baño eztaukozzia uste ebenen aurez-aurе jari zan, Hewlett, Benson eta Arnold'en antzean. Idazle onengan aurkitu giñei, engalandarak "humour" deritxoena.

"Elexaren eta agintarijen agindu -pian bixi danak, benetako azkatasuna dauka" Chesterton'ek iñuan. Idazlen onen eretxiz Toma deunaren alijetara begijak biartu biara geunkan. Akino'tar Toma'ren bixitzea idatzi eban. Gaur France'n ikusten doguzan Maritain, Claudel eta Cheon, be, bide orexek ziar ez ete-dabiltz?

England'eko seme onegan elkartuten ziran, ederkiro atan be. umien poztasuna eta goguaren sendotasuna. Olgetan benetan egirik ederenak idatzi eroiazan. Egi utsari oratuta bixi danaren mamija erakusten emoten dausku. London'en jayua zan, 1874'garen urtian. Entzuterik geyen emon eutson bere "The Napoleon of Nothing" idaztiak. Europa'ko Gudu-aldietan katoliku biurtu zan eta aurerantzian zintzoki jokatu zan.

Ogei milla artikulu baño geyago idatzi dauz. Liburutan, be, irakurí -ala. England osuan lotsa andijena eutsoen gixon oni. Geure Euzkadi onetzaz, be, zerbait idatzi eban, baña zarontzaliakin nastau eban geure aberтzaletasuna.

Goyan bego Chesterton idazle gorengua.

Kanpion'en Yan-Pier

(Euskeratua)

(JARAIPENA)

III

Amak bultzatako karoxatxoan Yan Pier eguraste bide ateratzerakoan galde oi zun beti ark:

—Nora goaz?

Eta itzak aldatuaz bat zan beti Yan Pier'en erantzuna.

—Iturira. Uren marmara ta txorien abestiak entzunaz atsegin zait zugaitzen azpian ordu erdi bat antxe igarotzea.

Bigarен aldian igari zun Miren'ek, zuura bai zan, bere erantzunaren zioa.

—Dominika dik gogoan; zaarez dik oroimena. Iturí ortantxe alkar ikusi ta mintzatzen bai ziran.

Bai, amak uste bezela, Dominika zizun buruan. Etxean zala, egurats-aldian zala, uriskako guziak txokatu zioten eskua, gogotsu agertu zuten; berak ez gañerantzeko guziak. Noski, Dominika'k etzeukan bere etxean sartzerik. Yan Pier'ek ezkontzeko baimena eskatu zuanean erraintzat ezbaizuten nai izan. Aztuta etzeukala agertze bide, edo kupiraz, zergatik etzion ordea kalean edo landan dirasol soil bat beenik opa izan? "Agur Yan Pier" bat izan baizitekeп eriotzezko bere begietan argi-tximista; samurtasun agerpen bat gorde baizezaken.

Ilunabar garaiean, ikusmen ordeko nolabait zitzaion zentsuaz, oarkor jarraitzen zitun bere eskuzko karoxatxo tik iturira urbiltzen ziran neskatxen oinkadak. Inguruetako gazte plantatuena zenean bere itzen deseoz izaten ziran zorigabekoaz erukiturik. esaten zioten guziak zerbait. Bakoitzari bere izenaz erantzuten zion Yan Pier'ek eskertasunezko begiratu triste batez lagundurik. Noiz esan al izango zun Dominika'rena! Bata bestearen ondoren jarraitzen ziran arratsaldeak aldarte ori gabe. "Ez dator", zion berekiko. Antxe zalakoa, Baiona'ko zapatagile oneranen eskutik irtendakoak oi ziran zapaten lur jotze lirañak salatuko zion. Bere geri apain eta arpegi polita baño areago, jantzi eta oñetako kontua zitzaion pertxentasun bide. Etzegon ez alaz guztiz ere geri eta arpegiaz aztuta. Yan Pier'ek emaztetzat Dominika artu nai izan zuanean, gartzuki ebaki zion itza Andre Miren'ek: "Nere kidekoa izan bear du nere erañak; gogoz berdiña zaidana batezere: balio dezala etxekoandretzarako, ikulu eta kanpoko lanetan pizkora izan dediia. Apur-apur egiten banaute ere ez det ontzat artzen eri txikiko joztuntxo aro, txoro eta pertxenta ori. Nai ta nai ez amore egin bear izan zitzaion epaiari.

Uste okerez zegon Yan Pier. Egunero etortzen zan ur bila Dominika. Egunero igarotzen zan ikuitzeko zorin bere ondotik; sula gori antzekoa, besoan, areakoan; urez dirdaitsu, buru-gañean, onerakoan; anima balitz bezela, oñutsik lura ixilki zapalduaz; luze-luze, aoa desairez, baño begiak lurari josita, eta Andre Miren'en begiratu gogora ondoz-ondo jarraitzen zitzaiolarik.

UZTURE.

Euzko-Idaz Alde

Euzkerea da euzko-abendegogapenak agertuteko erabili elia. Euzkerea da. baia be gudearen ezaugaririk agirijena. tzaz ludi-ziarko adimenik arduratu dira, naia beroen na ez sortzelekurik argituta ben, gaurik baltzenaren estalduta aurkitzen diralako be, euzkotarok, mintzera aberats au geuria ixatiagan geunkan-arен, bastartu, dogu, berau indartu ta guntzarik txikerenik ¡Zinetsi ezina benetan!

Euzkerea, zar ta edera jaren aundietsitia da kianik txiruena ba'litzate rok, ¡eta batez bere erabili, edertu ta zabaldurik gagoz, geuria, ko-abenda gustijaren "Euzkerea iten da 'ak—, aberтzaletasunik ixango da. Zabaldu egixuna ta Euzkerea beragaz balduko da". Baña bat tan, Sabin'ak iñuana? aberтzaletasuna zabaldu rea berarekin zabalduko zabaldu da euzkeltzaletasuna letasuna zabaldu dan ete da gaur, ene irakurle, getamar, aberтzaletasunaren dijan egiten zan beste uri naiz baserijetan? 'da, ¿zelan ulertu sunak ainbesteko ben bitartian euzkeltzaleta baz juatia? Jazoko ete ñogun aberтzaletasun 'litzateke? Ez! takua ba'litzateke, garan bakotxa ba'gintzatekez, tuta, bastar gustijetara kadi osuan erabilija re eskubetan dago, zabal'ak, Euzkerea, datoran ereka txikitxuba, tian bere etorereagaz ten eztiran ereka dana, berenez ereka tia, alge ta jetatik ozkari ritar gustijak begiratuba ixan da. Geuk, aberтzaliok ke,

Euzkerea galtzia, tzea ezta sari dogun legez ken agintzeari kotarok, kogulako ralarik idazten "Euzkereak tik len txaide, tikular ta gez, danak eztan tokijak, lotsa-txarari, zoltasun, laido, rea bere ordez yako." Eta 'dau iñuana, emon giñake, tan be erderea ño ugarijago ña etxietan txistik, ginduko legez, euren ta beraganako dur barik Euzkadi'n ber bakarra geuria, seme ta ondorengo -daben Euzkerea etxietako euzkeltzaletasuna, euren aberijatzako rak betetia txu.

Eta euzkeltzaletasunik ri, erijaren egongo litzaten Idazliak, ko-idazliak, era gustijetako leukiezanak ugari Euzkereak; baña idoroten eztabelako, giten dabezan tzuten eztautselako, oneik argitaratuten. utzune auxe betetan, lagunduten, liai ereztasunak-emoten

-Idazti-Alde.

Bazkun onek, biar dekin zenbatuten iru-iñabetero, edo tako idaztijak ataraten idazti onejn saneuri pidia guztiz merkia ti oneik baña, ixango dira.

Bazkidiai urtetan kotxeko ijeki bat tara, apur bat zenbat idazti atara, dakigulako zenbat Onegaz euzko-idazliai laguntzarik aundijena eurakin batian euzko-di gitxi baru guztiz teko ustia dogun.

Beraz, aberтzale danak euzkeltzaliak -ta, opaldu biar tzea bazkun oneri, bertara bazkidetutia daben ijekijetatik baz.

Aurera Euzko-Idazti-Alde!

IBAI-GAIN

Zortzitik-Zortzirat

AROA.—Balio othe du aroa aipatzea? Ez ote da guzietan bardina? Ba, ondikotz. Han-hemenka makhur batzu egiten ditu haatik orotan egiten ez dituenak, hala-nola aste huntan gun batez Sempere eta Azkainean arteko etche batean: ortzia sartu da Haitzetcheberian, nausia guti edo aski unkitu du eta lau behi eder hil. Afulgure, libera nos, Domine. Hemen gaindi artho guziak ez dire oraino eginak: eginak direnek ez dute ateratu nahi: sortuak direnek begitarte hitsa dute. Ez dakigu zer ikusi behar duten laborariek aurten!

PRESO.—Saratar gutiz gehienek kon trabando pichka bat egiten dute: E... delakoak ere ba. Bere ikustekoa du. Bainan mugazain bat egun hautan bere bidean kausiturik, jo du. Habete bat presondegi gostako zaio. Iguzkitan nahiagoko ba noski oraiko hotzekin egon!

PILOTA. — Gure plazetan ez ditake partida hainitz joka euriaren gatik: trinketak ez daude haatik lo: joanden igandean Baiona'ko trinketaren aldi zan: Miarritzeko trinketarena igande huntan. Buruz buru ari behark dire Dongaitz gaztea eta Harambiiet gaztea. Mundu bat bilduko da bi pilotari eder eta leial horion ikusteko. Gure arabera Harambiietik irabaziko du. Duela hogoibat urte bi pilotari gazte haukien aitak arizan ziren buruz-buru Donapaleon eta orduan Dongaitzek irabazi zuen.

ESKUALZALEEN BILTZARA.—Azteartean Baionan elgaretaratzekoak omen dire Eskualtzaleen. Biltzareko jaun buruzagiak: aldi huntan badukete zer egin. Ikusi eta ikuzi behar dituzte, sarien partitzeko, herietako haur ttipiek igori diozkaten 1.600 eskual lanak, bai, eta ikastegi handietarik ethori zaizkoten ehun eta berogoita hamarak. Zer oren gochoak izagan behar dituzten Eskuaran pulunpatuak!

PARIS'EN.—Paris'en bizi diren Eskualdunak ez dagozi lo: arats hautarik batez "radioaren" bidez oren maite bat iraganarazi daukute beren eskual kantu ederekin. Gora eta gora Legarralde, Galastegi, Bortayre, Hirigoyen, Ihitzague, Alamon eta Paris'eko bertze eskualzale guziak! Guk bezala Donostia'ko radion adi ez dezaketenek atsegin dute Paris'etik bederen zerbeit Eskuaraz aditzea...

DONAPALEON.—Donapaleon aphez gazte bat bada Eskual-Herriko oitureri aras atchikia dena: joanden igandean herriko plazan haur andana batekin sekulako phesta edera egina du, chichtulari eta dantzariekin pilotari ttiki batzu artekatuz. Ochala gure Herriko aphez guziek buruan har balezate hek dutela lan hoberena egiten ahal Eskualduntasunaren alde. Gora Aberia!

DONIANE.—Befitz ere Donianeko Begirale maitagariek eskual ikusgari bat eman nahi daukute igande huntan: Amerikanoa, Churiket egile kalakariak, Oxobiren olerki batzu. Eta horien guzien oraino gehiago edertzeko, Gipuzkoar batzuek dantzatuko dituzte inguratxo, sagar-dantza, zagi-dantza, iri -dantza eta bertze dantza batzu.

LIBURU BERI. — Atzo agertu da Baionako moldiztegi batean liburutto poiit bat "Atsotitz, Zuhur-hitz ete Eran -zahar" derizana. Aintzin solas labur batean egileak berak eraten du zertako argitaratu duen. Hogoita hamabi orialde ditu liburuttoak eta 1.02[illegible] eran -zahar dekartza. Ongi-ethori d[illegible]!

HAUR PRODIGOA.

Udaberri'ko egun bat

Udaberi'ko goizaldea da; goizalde alaigaria...
Dana ixil-ixil... eta une ontan erian, lo oste guzia.

Orain, eguzki edera, irtetzen da mendi oen atzetik...
Piztu da lura, eta argi onak dio: "egun-on" goi-goitik.

Agurtzen zaitut nik ere eguzki samur, zoriongarria.
Udastean zuk alaitzen dezu nere biotz txit eria.

Zuek, gazteak,
Orain zergatik
Zaudezte bean, erian..,
Biotz barutik
Agurtu gabe
Eguzki ona, mendian?..

Pozik ari da txofotxioka txoriño alaigaria,
Ta esaten dit: "Zuretzat, gazte, nere abesti zolia."

Eskarik asko zure abesti samurengatik, txoria.
Zuretzat izan dedin betiko, nere maitasun aundia.

Zuek, gazteak,
Orain zergatik
Egon lotan, or, erian..,
Biotz barutik
Laztandu gabe
Uretxindora, mendian...?

Lore politak, gogoz eskeintzen didate beuren usaia.
Ongi esanaz: "Zuretzat, gazte, gure urin gozo, alaia."

Zuek zerate nere biotz-ain gaxoaren senda-gaiak.
Nere muxua orain zuentzat, mendiko lore lirañak.

Zuek gazteak,
Zergatik egon
Goiz eder ontan, erian..
Biotz guztitik
Pa eman gabe
Lore politai mendian...?

Emen, mendion, yalotzen dan ur onak, ziñez esaten dit:
"Edan nazazu, zikinduko naiz, yatzi orduko menditik",

Zu zeralako guztiz garbia... edan nai zaitut poz-pozik.
Asetzen dezu nere egaria... maite zaitut biotzetik.

Zuek gazteak
Orain zergatik
Zaudezte bean, erian..,
Gogo onez edan
Gabe ur garbia,
Emen, mendiko iturian...?

Mendiko txori abeslariak, ixilik gelditu dira.
An, eleizatxo batean... dan... dan... yo dute.,, ilunabara da

Eta pizkaka euzki goria, an, itsasoan, sartu da...
Maite-maiteki esanaz: "Bigar goiz arte, agur, gaztea".

Bigar goiz-arte, agur, bai, zuri, eguzki maitagaria...
Zuk ez ba'nazu argi egiten ¡ilko da nere bizia!

Zuek, gazteak,
Orain zergatik
Egon or bean, erian...
Ikusi gabe
Euzkia sartzen
An, itsaso zabalean?

SATARKA.